

**ALDAKETARAKOabiapuntua**



**HERRIA***abian!*

Aldaketa soziala • Cambio social • Changement social

## I. SARRERA

Honako dokumentuan HERRIAabian!-etik ALDAKETARAKOabiapuntua tresna eratzeko aurrera eramán dugun prozesua azaltzen dugu. Aldi berean, tresna hori zer den eta zertarako nahi dugun azaltzen dugu. Guztion lana da beharrezkoa herri hau egunero egunero aurrera aterazen dugunok gure etorkizuna erabaki dezagun baita alor sozioekonomikoan ere eta horrela gure herriak behar duen aldaketa sozialean eta beste planeta baten eraikuntzan lagun dezagun. Animo!

## II. NOLA BILDU DUGUN ZIRIBORROA ERATZEKO MATERIALA

- a. ALDAKETARAKOabiapuntua osatzeko materiala hitzordu ezberdinetan bildu dugu:
  - i. Azaroan zehar hiriburu ezberdinetan egindako asanbladak. 100 pertsonak parte hartu zuten guztira asanblada horietan.
  - ii. Azaroan, abenduan eta urtarrilean zehar kolektiboek egindako ekarpenak. Alor ezberdinetako 23 kolektibok egin dituzte ekarpenak.
  - iii. Norbanakoek egindako ekarpenak. 16 pertsonak egin dituzte norbanako ekarpenak.
  - iv. 2010eko otsailean zehar hiru hitzordutan, HERRIAabian!-en manifestuaren sinatzaile guztiak gonbidatu zirelarik, egindako lehen zirriborrea.
  - v. 2010eko martxoan zirriborro hori hiriburuetan egindako asanbladetan kontrastatu zen. Asanblada horietan 140 pertsonak hartu zuten parte.
  - vi. Maiatzaren 15eko asanblada – eta internet bidez azken ekarpenak egiteko aukera zegoen hurrengo astea – 150 pertsonaren parte-hartzearekin. Bertan ALDAKETARAKOabiapuntua zehaztu genuen bertan.

## III. ZIRIBORROAK JASOTAKO EKARPENAK

- a. EKARPENAK I: URRIAREN 17ko ASANBLADA GASTEIZEN
- b. EKARPENAK II: HIRIBURUETAN EGINDAKO ASANBLADAK
  - i. IRUÑEA
  - ii. BILBO
  - iii. DONOSTIA
  - iv. ZORNOTZA
  - v. GASTEIZ
- c. EKARPENAK II: KOLEKTIBOAK
  - i. 8. HERRIALDEA
  - ii. ANITZAK
  - iii. BILGUNE FEMINISTA
  - iv. BIHOTZARAN AUZO ELKARTEA
  - v. EHGAM EUSKAL HERRIA
  - vi. EGUZKI
  - vii. EUSKAL HERRIA SOZIALISTA
  - viii. ELKARTZEN
  - ix. EZKER GOGOIA
  - x. EGIAKO ETA GROSS-eko AUZO ELKARTEAK
  - xi. EKA-OCUV
  - xii. HALA BEDI
  - xiii. EHNE
  - xiv. HIRU
  - xv. JUDIMENDIKOAK AUZO ELKARTEA
  - xvi. KEPASAKONLAKASA
  - xvii. LAB
  - xviii. LURRA NAFARROA
  - xix. MATXINGUNEA
  - xx. PARE
  - xxi. SALHAKETA ARABA
  - xxii. SOS ARRAZAKERIA BIZKAIA
  - xxiii. ZIRIKATZEN
- d. EKARPENAK III: NORBANAKOAK
  - i. AMPARO LASHERAS
  - ii. ANDONI TXASKO
  - iii. ESTEBAN GUILLEN
  - iv. FELIX PLACER
  - v. GUILLERMO PEREA
  - vi. IÑAKI ZARATE
  - vii. JABI ROBLES
  - viii. JESUS OÑATE
  - ix. JON MINTEGIAGA
  - x. JOSE IGNACIO IMAZ
  - xi. JUANTXU OSCOZ
  - xii. KARLO RAVELLI
  - xiii. OIER AZKARRAGA
  - xiv. PATILI

## IV. ZER NOLAKO EKARPENAK BILDU DIREN

- a. Ekarpinak prozesua hasi zenean ezarri ziren irizpideen arabera izan dira orokorrean. Hori bai, denetarik dago: markatutako irizpideen arabera ALDAKETARAKOabiapuntua-ri egindako ekarpenetik hasita, HERRIAabian!-en ibilerari buruzko ñabarduretara. Ekarpin oro bildu dugu. Gainera, ekarpenaren jatorrizko hizkuntza errespetatu da. HORI BAI, ZIRIBORROA ERATZEKO ORDUAN AIPATU GAIARI BURUZKO ETA EZARRITAKO IRIZPIDEEN BARNEKO EKARPENETARA MUGATU GARA. HORREK EZ DU ESAN NAHI GAINONTZEKO EKARPENEK EZ DUTENIK HERRIAabian! ABERASTEN, KONTUAN HARTU BEHARKO DITUGULARIK.

## V. ZER EGITEN ARI GAREN ETA ZER EGINGO DUGUN

- a. Zirriborroaren eratze prozesua zehazteko, tresna horren garapenerako markatu ziren irizpideak eta egindako hurratsak gogoratzea komeni da.
- i. **ALDAKETARAKOabiapuntua eratzeko irizpideak:**
1. **Zer egin nahi dugun**

HERRIAabian! osatzen dugun pertsona, kolektibo eta sektore guztiok diagnostiko bat adostu genuen 2009ko ekainean eta orain ALDAKETARAKOabiapuntua zehazten ari gara gure herriak eta langile klaseak behar duten aldaketa sozialerantz hurrats berriak emateko lanerako tresna lez.
  2. **Zer nolako tresna eraiki nahi dugun**
    - a. Aldaketara bidean eraginkorra izango den tresna bat.
    - b. HERRIAabian!-en sorrerarekin bultzatu genituen gutxienekoak bildu ditu
      - i. Egungo ereduaren aldaketa sakona
      - ii. Aldaketa sozial hori aurrera eramateko herri honek tresnak behar dituela aldarrikatzea. Subiranotasun ekonomikoa.
    - c. Gure manifestuak biltzen dituen aldaketa sozialerako lau ardatzak (lan produktiboaren eta erreproduktiboaren banaketa; aberastasunaren banaketa; ekonomiaren demokratizazioa eta ekosistemaren garapen demokratikoa) zehaztu ditu.
    - d. "Orokorra". Neurri zehatzak baino, lau ardatz horiek zehazten joan diren ideiak bildu ditu. Hori bai, gutxieneko zehaztasun bat du.
    - e. Euskal Herri osoa kontuan hartzen saiatu gara.
    - f. Dinamika. Denboran zehar ekarpen eta zehaztapen berriak jaso behar dituela uste dugu.
    - g. Guztiok batzeko intentzioa du. Hori bai, ez ditu bakoitzaren aldarrikapen eta maximoak jasotzen. Guztiotzat baliagarri izango den lanerako tresna baten eraketan asmatu behar dugu, zeina bakoitzaren aldarrikapen zehaztatik haratago joango den (horretarako badaude kolektibo eta sektore zehazten aldarrikapen taulak) eta zeinak HERRIAabian!-en guztiok batzen gaituen gutxienekoak bilduko dituen.
    - h. Beharrezkoa dugun aldaketara bidean hurratsak emateko gutxienekoak biltzen dituen tresna bat eratu dugu. Oraindik zehaztu ez duguna tresna horretan artikulatuko ditugun ideia eta helburuak egia bihurtzeko estrategia da. Maiatzaren 15ean 2010-2011 kurtsorako lan-plangintza bat proposatu zen, hurrengo kurtsorearen hasierako asanbladan zehaztu beharko dena.
- ii. **Orain arteko hurratsak eta ibilbidean epe laburrean:**
1. Prozesu parte-hartzaile batean oinarritutako tresna bat sortu nahi izan dugu. Behin eta berriro diogu aldaketa oinarritik iritsiko dela. Horrenbestez, garrantzitsua da tresna hori prozesu parte-hartzaile baten bidez sortzea. Honakoa prozesu parte-hartzaile horren ibilbidea litzateke:
  2. **Orain arte egindakoa:**
    - a. Aurkezpena: 2009ko ekainean diagnostiko bat adostu genuen eta kurso hasieran ALDAKETARAKOabiapuntua-ekin nahi genuenaren aurkezpena egin genuen.
    - b. Jarraian, tresna horrekin HERRIAabian!-en manifestua sinatu duten kolektiboengana jo dugu ekarpenak egitera gonbidatuz. Gainera, hiriburu bakoitzean hitzordu bat egin dugu, kolektiboez gain norbanakoak ere gonbidatuz.

Ekarpenak egiteko epea urtarrilaren 22an itxi genuen. Dokumentu honen II. atalean kolektibo eta norbanakoen ekarpenen zerrenda zehaztu dugu. Bere garaian HERRIAabian!-eko pertsona guztiei bidali zitzairen ekarpen horiek oso-osorik biltzen zituen dokumentua.

- c. Otsailaren 13 eta 27an eta martxoaren 6an 3 hitzordu egin dira (HERRIAabian!-eko kide diren pertsona guztiak gonbidatuta) eta zirriborroa osatu dugu (dokumentuaren bukaeran atxikitzen dugu).
  - d. Martxoan zehar zirriborroaren kontrastaketa egin dugu hiriburuetako asanbladeta
  - e. Apirilean zehar maiatzaren 15eko Asanbladan aurkeztu zen zirriborroa osatu zen
  - f. Maiatzaren 15ean Asanblada Orokor bat egin genuen, ALDAKETARAKOabiapuntua zehaztuz.
3. **Hemendik aurrera daukaguna:**
- a. Maiatzaren 15eko Asanbladan hurrengo kurtsorako lan-plangintza bat proposatu zen. Egun hartan proposamen horri eginiko ekarpenak bildu ziren eta datorren kurtsoko lehen asanbladan eraikitako tresna nola sozializatu eta berorren eta baita dinamika zehatzen defentsan herritarrak nola aktibatu mahaigaineratuko da.

# ALDAKETARAKO abiapuntua

Guk: lanpostudun langileok eta langabetuok, emakumeok, gazteok, nekazariok, arrantzaleok, pentsiodunok, pertsona migranteok, ekologistok, disidente sexualok, gaitasun gabeziadun pertsonok, autonomo dependienteok, ikasleok... eredu ekonomiko eta sozial alternatibo baten alde egiten dugu. Herri hau egunero egunero aurrera ateratzen dugunok Euskal Herria eraiki ahal izatea eskatzen dugu eta zapalkuntzan oinarritutako erlazioak, pertsona batzuen besteen gaineko esplotazioa eta jabetza kapitalista oinarri izango ez dituen eta auzi sozial, adin, orientazio sexual, genero, etnia, jatorri, jabetza edota nazioaren arabera bazterketarik onartuko ez duen beste Mundu baten eraikuntzari gure ekarpena egin nahi diogu. Zentzu horretan, herrien autodeterminazioarako eskubidea onartzen dugu, bertako biztanleak beren nahien arabera era askean garatu eta antolatu daitezten. Nahi hori era parte-hartzailean eraman gura dugu praktikara, herritarrek inplikatu eta aktibatuz, proiektu komunikatibo herrikoiak bultzatuz komunikabide handien monopolioaren aurrean, auzolana indartuz eta egungo ereduaren aldaketa sakon batekin engaiatutako Planetako beste herriekin batera. Egungoari alternatiba eskainiko dion ereduaren zehaztapenak dinamikoak izan behar duela eta egunerokotzen joan behar duela uste dugu, honakoa exijituz oraingoz:

## 1. Eskuragarri dauden lanpostuen eta lan produktibo eta erreproduktiboaren banaketa: *ordu gutxiago lan egin guztiok lan egiteko. Lan produktibo eta erreproduktiboko denbora murriztu parte-hartze soziala, aisialdia edota denbora libre ahalbidetzeko.*

- Kalitatezko lanpostuak bermatzea, prekarietatea, lanetik eratorritako gaixotasunak eta lan istripuak ezabatuko dituztenak. Ordu extrak, azpiko-lana eta lanaren banaketa sexuala deuseztatzea.
- Soldatapeko lanastearen murriztea asteko 35 ordura, soldatak gutxitu gabe. Errelebo-kontratu duinak eta 55 urterekin erretretak bultzatzea parte-hartze soziala erraztu eta betiereko langabezia tasa murrizteko. Lan produktibo eta erreproduktibo, hots, bizitza laborala eta pribatua, parte-hartze sozial aktiboarekin eta aisialdiarekin uztartzea.
- Berdintasunezko balore eta arauetan kontzientziatze eta heziketa etxeko lanen nabarmentzeko, hori berori emakumezkoen esku bakarrik gera ez dadin.
- Lan erreproduktiboaren garrantzia sozialaren aldarrikatzea eta eskubideen berdintzea.
- Lan publikoaren eta pribatuaren arteko lanpostuen soldata desorekak murriztu eta kasu guztietan lan berberengatik ordainsari berbera ziurtatu.

## 2. Aberastasunaren banaketa: *pertsonen eta herrien gainean egiten dugun esplotazioa deuseztatzea bideratu eta naturarekiko oreka hobestea bere garapena eta biziraupena ziurtatzeko, eskubide indibidual eta kolektiboak bermatzeko helburuarekin aberastasuna banatuz.*

- Bai hirigune eta bai landaguneetan pertsona orori eskubide sozialak bermatuko dizkion sistema publikoa ezartzea: etxebizitza – alokairuan eta azpierzaitzako higiezinaren parkea optimizatuz, jabetza publikora igaroz Banku, Kutxa, enpresa Etxegileen eta etxebizitza Sustatzaileen esku dauden etxebizitza hutsak eta kanporaketak atzeratuz –, osasuna, heziketa, zerbitzu sozialak, kulturaren eskuragarritasuna... Dirua egon badago baina eskubide horiek bermatzeko gastu antisozialak deuseztatu behar dira: gastu militar eta polizia, Bankari diru bideratzeak edota kargu publikoen itzelezko soldata eta sariak.
- Gizarte Segurantzako erregimen berezien deuseztatzea: generoaren gaineko bazterketa dakarten gizarte segurantzako erregimen berezien deuseztatzea eta erregimen orokor bakarraren sorrera. Zerbitzu sozial publiko, unibertsal eta kalitatezkoen bermatzea – jantoki publikoak, haur-eskolak, egoitzak...
- Pobreziaren muga komunitate osoak sortutako aberastasunaren arabera ezartzea eta herritar orori muga horren gainetik egongo diren dirusarrerak bermatzea Gutxieneko Soldata eta zerbitzu sozial duin batzuen bitartez.
- Sistema fiskalaren berrantolatzea gehien dutenek zerga gehiago ordain dezaten, iruzur fiskala jazarria eta zeharkako zergak (BEZ,...) deuseztatuak izan daitezten.

## 3. Ekonomiaren demokratizazioa: *alor sozial, ekonomiko edota administratiboaren antolaketan herritarren parte-hartzea bermatzea.*

- Gure herriaren azterketa sakona egitea gure errealitatea ezagutu eta, horren arabera, herritarren zerbitzura egongo den ekonomia zehazteko, sektore estrategikoen eta finantza-sistemaren kontrol publikoa bultzatuz.
- Informazioa bermatzea pertsona orok izan dezan auzi publikoei buruzko ezagutza eta horien gaineko kontrola ahalbidetu dadin.
- Ekonomiaren zehaztapen eta antolaketa guztian herritarren parte-hartzea ziurtatzea: aurrekontuak, hirigintza eta azpiegitura planak, lurralde planak... Horretarako, asanbladak, galdeketa eta erabaki-erreferendumak bezalako tresnak indartzea eta teknologia berriek eskaintzen dituzten aukeren erabilpena.
- Lantokietan langileen parte-hartzea erraztuko duten antolaketa erak indartzea.
- Langile klasearen eta komunitatearen zerbitzura egongo den eredu ekonomiko baten aldeko hautua.

## 4. Ekosistemaren garapen demokratikoa: *Lurra, gure espazio natural eta soziala, eta bere ingurunearekin uztartutako garapen ekonomiko eta sozial endogenoa aldeztzea, neurrigabeko hazkundearen ereduak dakarren kontsumo maila murriztuz*

- Gure herriaren aztarna ekologikoa kalkulatzeko eta gure egunerokotasuna ingurunearen ez erasotzearekin, hurrengo belaunaldien bizitza ez hipotekatzearekin, klase langilearen eta bereziki emakumeen ez zapaltzearekin eta planetako beste toki eta herrien ez lapurketarekin uztartuko duten autogestio ereduak bultzatzea.
- Gure ekonomiaren garapen orekatu bat bermatzea gure herriaren elikadura-subiranotasuna aldeztuko duen hazkunde endogenoa bultzatuz.
- Ingurumenari eraso egiten dion azpiegitura ororen atzeratzea eta eztabaiden bultzatzea parte-hartzea eta horiei buruzko herritarren azken erabakia bermatuz, herritarren kontrolpean egongo diren eta autohornikuntza zein deszentralizazioan oinarritutako egongo diren energia berriztagarrien garapena bultzatu.
- Herritarren bizi kalitatea neurtzen duen adierazle berri baten eraketa, zeina ez den kontsumo alienatzaile eta aberastasun ekoizpenean – askotan lobby ezberdinekin lotua – bakarrik oinarrituko, aldi berean pertsonaren garapen osora bideratutako bizi praktikak hobetsiz.
- Herri bakoitza, bere kulturarekin, bere ekosistemaren parte da eta era orekatuan edo desorekatuan eragin diezaiolke. Talde berri bat iristean, bere kultura propioa bertakoenarekin uztartu behar du ekosistema soziala bateratzeko. Uztarteta horrek elkar onartzea izan behar du oinarri.